


ULTZAMALDEAN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA BULTZATZEKO III. PLANA

(2026-2032)



Dokumentu hau Ultzamaldeko mankomunitatea osatzen duten udal guztiena da, eta ordezkari politiko eta langile publikoen lanerako dokumentua izatea du helburu, Ultzamaldeko politika publiko guztien norabidea berdintasunaren aldekoa izan dadin. Plana sustatzeko eta koordinatzeko ardura Gizarte Zerbitzuetan kokatuta dagoen Berdintasun Zerbitzuak izango du. Horretarako baliabide pertsonal eta ekonomikoak izango ditu.

Plana Elhuyar aholkularitzaren laguntzarekin diseinatu da, baita Ultzamaldeko herritarren, mugimendu feministaren eta langile publikoen laguntzarekin. Horrez gain, Nafarroako gobernuaren dirulaguntza jaso du.

Ultzamaldeko Berdintasunerako III. Plana 2025eko irailean onartu zuen Ultzamaldeko Mankomunitateko Juntak.

Planaren sustapena eta koordinazioa:



BERDINTASUN
ZERBITZUA



Mancomunidad
de Servicios Sociales
zona Ultzama
Ultzamaldeko
Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitatea

Diseinua eta aholkularitza:

elhuyar

Diruz lagundua:

Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

AURKIBIDEA

01 ZERGATIK BEHAR DU ULTZAMALDEAK BERDINTASUN PLANA?

1. Ultzamaldeko biztanleen ongizatea dagoelako jokoan
2. Administrazioaren betebeharra delako bereizkeriak ezabatu eta genero-berdintasuna bultzatzea

02 NOLAKOA DA EGUNGO EGOERA ULTZAMALDEAN GENERO-BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ?

1. Populazioaren zahartzea: zaintzarako aukerak eta beharrak
2. Emakumeen pobrezia eta prekarietatea
3. Gizonen eta emakumeen presentzia bizitza publikoan
4. Emakumeen aurkako indarkeria matxista

03 ZER EGIN DUGU ORAIN ARTE ETA ZEIN BALDINTZA DITUGU?

1. Berdintasun politikak Ultzamaldean
2. Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa

04 GENERO-BERDINTASUNA BULTZATZEKO III. PLANA

1. Planaren lau erronkak
2. Planaren egitura: helburuak eta ekintzak
3. Plana kudeatzeko sistema
4. Planaren komunikazioa



01 ZERGATIK BEHAR DU ULTZAMALDEAK BERDINTASUN PLANA?

1. ULTZAMALDEKO BIZTANLEEN ONGIZATEA DAGOELAKO JOKOAN

Nazio Batuen Erakundeak* dio herrialdeen garapenerako oztopo nagusietako bat emakume eta neskatilen kontrako indarkeria eta genero bereizkeriak direla. Era berean, gogorazten du emakumeen eskubideak giza eskubideak direla, eta hauek bermatu gabe ezin dela bakerik bermatu munduan.

Europako genero berdintasunerako institutuak** (EIGE) bere txostenetan azaltzen du herrialde batek genero berdintasunean ematen dituen aurrerapausoek herrialdeko ekonomia indartzen dutela eta lotura zuzena ikusten du emakumeen enpleguaren kalitatearen hobekuntzaren eta Europako herrialdeen garapen ekonomikoaren artean.

Ultzamaldeko Udalek ere berdintasun politiken aldeko apustua ezinbestekoa dela uste dugu gure herrien eta herritarren ongizatea hobetzeko, bai emakumeena baita pertsona guztiena ere. Izan ere, genero bereizkeriek ekartzen dituzten arriskuak gizarte osoarentzat dira kaltegarriak: emakumeen kontrako indarkeria, emakumeen menpekotasun ekonomikoa, neskatilen eta emakumeen talentuen galera eta garapen pertsonalerako aukerak galtzea, edota gizonen inplikazio eza zaintza lanetan eta gizon eta mutikoen joera praktika arriskutsuetan aritzeko edo indarkeria erabiltzeko, besteak beste. Joera horiek ez dira herritar guztienak, noski, baina bai uste baino gehiagotan errepikatzen direnak, eta denon ongizatea baldintzatzen dute.

Gauzak horrela, Ultzamaldeko bailaren (Anue, Atetz, Basaburua, Lantz, Odieta eta Ultzama) eta herritarren ongizate osoan aurrerapausoak emateko berdintasun politiken aldeko apustua egiten dugu.

Mila esker politika hauek diseinatzen lagundu diguzuen herritar, talde feminista, langile publiko eta udal ordezkari. Zuek gabe ezingo genituzke berdintasunerako erronkak Ultzamaldeko errealitatera behar bezala egokitu.

*www.unwomen.org/es/conozcanos/documentos-rectores

**www.eige.europa.eu "beneficios económicos de la igualdad de género en la UE"

01 ZERGATIK BEHAR DU ULTZAMALDEAK BERDINTASUN PLANA?

2. ADMINISTRAZIOAREN BETEBEHARRA DELAKO BEREIZKERIAK EZABATU ETA GENERO-BERDINTASUNA BULTZATZEA

Administrazioaren ardura da kontzienteki emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta genero-bereizkeriak ezabatzea beren jarduera guztien bidez. Horrela jasotzen da hainbat testu legegiletan.



EMAKUMEAREN MUNDUKO KOFERENTZIA NBE, Beijing, 1995

- *“Sexuen arteko berdintasuna sortzeko, botere publikoek genero ikuspegia txertatu behar dute beren ekintza, jarduera eta eremu guztietan”*



EUOPAR BATASUNEN FUNTZIONAMENDURAKO TRATATUA (Lisboako 2009)

- 8. artikulua: *“Europar Batasunak, bere ekintza guztietan helburutzat hartuko du emakume eta gizonen arteko bereizkeriak ezabatzea eta berdintasuna sustatzea.”*



17/2019 FORU LEGEA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKOA

- 12. artikulua. Nafarroako toki entitateen zereginak.
 - a) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko politikaren arloko helburuak eta jarraibideak ezartzea beraien lurraldean, Nafarroako Foru Komunitatearen politikekin koordinatuta.
 - b) Beraien jarduketa guztietan genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna txertatzeko behar diren tresnak ezartzea.

01 ZERGATIK BEHAR DU ULTZAMALDEAK BERDINTASUN PLANA?

Erakunde publikoek emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzen dutela bermatzeko beren jardueratan genero-ikuspegia txertatu eta emakumeen ahalduntzea sustatu behar dute estrategia gisa. Estrategia horiek garatzeko helburu eta ekintza zehatzak planifikatzen dituzte erakundeek.

Ultzamaldeko Berdintasun Plan berria diseinatzeko NBEko eta Nafarroako Berdintasun politiken plangintzak hartu dira kontutan, baita mugimendu feministaren eta Ultzamaldeko eragileen iritzia ere.

III. PLANA DISEINATZEKO ERREFERENTZIAZKO ITURRIAK



02 NOLAKOA DA EGUNGO EGOERA ULTZAMALDEAN GENERO- BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ?

- 1. Populazioaren zahartzea:
zaintzarako aukerak eta beharrak**
- 2. Emakumeen pobrezia eta
prekarietatea**
- 3. Gizonen eta emakumeen presentzia
bizitza publikoan**
- 4. Emakumeen aurkako indarkeria
matxista**




02 NOLAKOA DA EGUNGO EGOERA ULTZAMALDEAN GENERO-BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ?

1. Populazioaren zahartzea: zaintzarako aukerak eta beharrak


- Ultzamaldea landa eremua da, nahiz eta Iruñatik gertu egon. Biztanleriaren zahartzearen fenomenoa Nafarroan baina gogorragoa da. Herri gehienetan 60 urtetik gorako biztanleak herritarren herena dira, eta Nafarroaren batezbestekoa gainditzen dute datuek (Anuen izan ezik).
- Populazioaren zahartzeak zaintza beharrak eta menpekotasun ekonomikoa (pentsioekiko menpekotasuna) handitzen ditu. Zaintza beharrei aurre egitea ez da jarduera hutsa, lana da; kasu batzuetan soldatapekoa, baina gehien gehiena emakumeek muxu-truk egindakoa, eta bizitza iraunarazteko ezinbestekoa. Atal honetan zaintza beharrei helduko diogu, eta hurrengoan menpekotasun ekonomikoaren gaiari.
- Zaintzen krisia landa eremuetan areagotu egiten da populazioaren zahartzeak eta menpekotasun beharrak handiagoak direlako, dispertsio geografikoak zerbitzu publikoen irisgarritasuna zailtzen duelako eta familia eredu tradizionalagoetan genero-erolek indar gehiago dutelako, eta horrek familia barruan zaintza lanen banaketa juxtuago bat oztopatzen duelako, besteak beste.
- Zaintzen krisiak Ultzamaldean nola eragiten duen aztertzeke diagnostiko bat egin zen 2022 urtean. Bestetik, INAI/NABIk 2020an “Zaintzen erradiografia Nafarroan” ikerketa argitaratu zuen, eta 2021ean “Etxeko langileak Nafarroan” ikerketa.
- Familia barruan asetzen dira zaintza behar gehienak, adin txikikoenak, menpekotasuna dutenenak, pertsona nagusien beharrak, herritar orenak barne. Izan ere, ezin da ahaztu pertsona guztiek dauzkagula zaintza beharrak: etxeko garbiketara, janaria, babes psikologikoa, edo gaixoaldiak ditugunean, besteak beste. Pertsona osasuntsu eta zainduak behar ditu gizarteak eta merkatuak, eta hori zaintza lanen bidez lortzen da.




60 URTETIK GORAKOEN PORTZENTAIA
2022 (NASTAT)



ZAINTZA LANEN EZAUGARRIAK



NAFARROAKO ETXEKO LANGILEAK



1. Populazioaren zahartzea: zaintzarako aukerak eta beharrak

- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua da mankomunitateak zaintza beharrei erantzuteko zerbitzu nagusia. Bere bertutea da zerbitzu publikoa dela. Bost langile daude une honetan, eta zerbitzua goizez bakarrik eskaintzen da.
- Gizarte langilearen bidez eskuratzen da zerbitzua eta prezio publikoak ezartzen dira zaintza beharrak dituztenen diru-sarreraren arabera.
- Zerbitzuaren erabilera handia da, Nafarroako batz bestekoa baina handiagoa (Nafarroan, biztanleriaren % 0,49ak erabiltzen du, aldiz, Ultzamaldean % 1,29k). Hala ere, 2014az geroztik, erabilera gutxitu egin da.
- Pentsa daiteke etxeko-langileak kontratatzeke joera handituz joan dela azken urteotan, Etxez Etxeko Zerbitzu publikoak baina ordu gehiago eskaintzen dutelako norbanako langile hauek eta gainera merkeago kontratatzeke aukera dagoelako.
- Kontuz ibili behar da, ordea. Egun, etxeko-langileen lan baldintzak, kasu askotan esklabutzaren antzekoak baitira, neskame edo morroi garaiko lan baldintzetan egoten dira: oporrik gabe, kontratu gabe, ordainsari oso txikiekin. Hala berresten dute Nafarroako zaintzaileen inguruko ikerketek, INAI/NABIn topa daitezkeenak.
- Herritarrek zerbitzu publikoen aldeko apustua egiteko zerbitzu hauek eskaintzen duten denbora, espezializazioa, hizkuntza-zerbitzua (euskara) eta prezioa hobetzeko aukerak aztertu behar dira.

“Etxez etxeko zerbitzua indartzea ezinbestekoa da. Etxeetan isolatuta gaudelako askotan, bai zaintzaileak, bai eta zaintza behar duten pertsonak ere. Zerbitzua zaintzak behar dituzten pertsonentzat eta zaintzaileen deskantsuentzat behar da”


Udal batetako ordezkariaren hitzak

- Bestetik, Gizarte Zerbitzuen bidez zaintzarako dirulaguntzak, material teknikoa (aulkiak, ohe bereziak...) eskuratzeko aukera dago egun.
- Aipatutako guztia osatzeko, esan beharra dago eskualdean badagoela egoitza bat. Horretaz gain, eguneko zentroa irekiko du Basaburuako Udalak aurki. Hala ere, dagoen eskaera edo beharra asetzeko plaza kopurua egongo den ez da jakina. Horrez gain, zerbitzu hauetara iritsi ahal izateko garraioa eskaintzea ezinbestekotzat jotzen dute elkarrizketatu batzuk.
- Bestetik, Basaburuako Udalak Jubiloteka zerbitzua ere irekitzeko hautua egin du, eta epe laburrean martxan jartzea aurreikusten da.

02 NOLAKOA DA EGUNGO EGOERA ULTZAMALDEAN GENERO-BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ?

2. Emakumeen pobrezia eta prekarietatea

- NASTAT eta Nafarroako Gizarte Dokumentazioaren Zentroan aurki daitezkeen datuetan Nafarroako eta Ultzamaldeko hainbat datu aurkitu ditugu sexuaren arabera banatuta.
- Diru-sarrerei dagokionez, Ultzamaldeko soldatak, orokorrean, Nafarroakoak baina pixka bat baxuagoak dira, bai emakumeenak bai eta gizonenak ere. Hala ere, adinaren arabera banatuta, ikusten da 34 urtetik beherakoen soldatak altuagoak direla Ultzamaldean Nafarroan baino, gutxiatik bada ere. Gainontzeko adin-tarte guztietan Nafarroakoak altuagoak dira. Arrakala handiena 55 urtetik gorako soldatetan dago. Bataz beste, Nafarroan 55 urtetik gorako soldatak 33.179 eurokoak dira urtean. Ultzamaldeko 55 urtetik gorako herritarren soldatak, ordea, 31.090 eurokoak dira batezbeste urtean.
- Jakina, sexuaren arabera datuak aztertuz gero, emakumeek urtean jasotzen dutena gizonena baino baxuagoa da, bai Nafarroan, bai eta Ultzamaldean ere. Urteko soldata arrakala Nafarroan % 18,7koa da, eta Ultzamaldean % 19,4koa. Zer esanik ez pentsioen arrakala neurtuz gero. Kasu honetan, Nafarroako pentsioen genero-arrakala % 37koa dela diote datuek. Ondoko grafikoan ikusten dira pentsioen batezbestekoak Nafarroan sexuaren arabera.
- Enpleguari erreparatuz gero, arrakala handiena lanaldi partzialetan dago. Nafarroako bost emakumetik batek enplegu partziala du, aldiz, gizonen % 5ak soilik du enplegu partziala (hau da, 20tik batek). Horrek enpleguaren kalitatean eta baliabide ekonomikoetan eragin handia du.
- Jarduera-tasan, enplegu-tasan eta langabezia-tasetan ere arrakalak nabari dira emakume eta gizonen artean. Emakumeek lan munduan sartzeko zailtasun gehiago dituztela diote datuek, baina hala ere, Nafarroa mailako arrakalak baina baxuagoak dira Ultzamaldekoak, kasu honetan.



URTEKO SOLDATA-ARRAKALA
SEXUAREN ARABERA (2023)


NAFARROAN % 18,7
ULTZAMALDEAN % 19,4

NAFARROAKO LANALDI PARTZIALAK (2025)

Lanean dauden Nafarroako emakumeen laurdenak (% 21ak) lanaldi partziala du, gizonen % 5aren aldean.



NAFARROAKO PENTSIOMETAN SEXUAREN ARABERAKO ARRAKALA (2021)



2. Emakumeen pobrezia eta prekarietatea

- Enplegurako aukeren inguruan galdetuta, herritarrek, egindako elkarrizketetan azaldu dute emakumeentzako lan aukerak, batez ere, hirugarren sektorean eta zaintzan daudela egun. Emakume askorentzat administrazioan lan egitea izaten da beste aukeretako bat. Badira ere poligonoan hainbat enpresa emakumeak kontratatzen dituztenak. Landako turismoa, ostalaritza eta merkataritza ere emakumeak ikusten dira nagusiki. Baina aipatutako sektore guzti hauen presentzia oso urria da bailara hauetan, beraz, lan aukerak ez dira oso handiak. Lehen sektorean ere badira emakumeak, abeltzantza eta nekazaritza.
- Nafarroak badu herrien despopulaziorako estrategia adostuta 2023tik eta gaia lantzen duen lege proiektua dago egun mahai gainean. Nafarroako herrientzat ezinbestekoa da erronka demografikoari erantzutea, baita landa eremuko herrietako biztanleei eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko bideak jartzea ere. Erronka hau zeharkatzen duen printzipioetako bat da genero-berdintasuna.
- Enplegua izateko aukerak handitzeko, baita zerbitzuetara modu egokian iristeko mugikortasunak paper garrantzitsua jokatzen du. Kotxe pribatua ia ezinbestekoa da enplegura eta zerbitzuetara iristeko. Gauzak horrela, bizi baldintzak hobetzeko mugikortasuna erraztea da udalen erronka handienetako bat. Batez ere haur, gazte, pertsona dependiente, edo kotxerik gabekoentzat, hau da pobrezia edo prekarietateak zeharkatzen dituen pertsonentzat.

“Emakumeak etxeko kontuetara, bilobak zaintzen, edo kultura batzordean... lan handia egiten dute eskualdean. Baina gehienetan kotizatu gabeko lanak egiten dituzte, eta horregatik, gizonezkoen pentsioen erdia jasotzen dute”

Jubilatuaren elkarteko kide baten hitzak

- Esan bezala, bizitza asko prekarizatzen duen faktorea da zerbitzuetara iritsi ahal izateko garraioa edo irisgarritasuna. Ultzamaldean egiten diren ikerketa eta elkarrizketa guztietan nabarmentzen da arazoa. Horri aurre egiteko “taxi-zerbitzu” beharraz hitz egin da, bide-gorri edo oinezko bideak, bizikletak sustatzea, besteak beste. Badira bestelako proposamenak ere, zerbitzuak etxetara iristeko “janaria etxera eramateko proiektua” edota “liburutegi ibiltaria” bezalakoak.
- Osasungintzari dagokionez, pediatria, geriatria eta emagina falta dira Ultzamaldean. Zerbitzu hauek bizi kalitate on baterako ezinbestekoak dira. Izan ere, pertsonen osasuna eta zaintza emakumeen esku geratzeak emakumei gehiegizko lan zama ekartzen die eta enplegurako aukerak gutxitu. Horrez gain, helduen artean emakumeak dira nagusi, eta emaginaren beharra ere emakumeek dute. Gauzak horrela, osasungintzaren ikuspegitik bizi-baldintzak hobetzeko beharra ere identifikatu da Plan berria diseinatzeko prozesuan.

02 NOLAKOA DA EGUNGO EGOERA ULTZAMALDEAN GENERO-BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ?



3. Gizonen eta emakumeen presentzia bizitza publikoan


“Zaintzen erradiografia 2020” INAI/NABIk egindako ikerketan Laura Martinez Jimenez egileak esaten du genero rol eta estereotipoek oraindik Nafarroako emakume eta gizonen bizitzak baldintzatzen dituztela. Nafarroa eta Espainiar Estatu mailan egindako hainbat inkestetan oinarritzen da horretarako.

1. Genero-rolari jarraiki, umeen eta zaintzen ardura emakumeena izaten jarraitzen du Nafarroan. Datu bat emate arren, seme-alaben zaintzarako baimenen % 63a emakumezkoek hartzen dituzte. Baina era berean, zainketen ardura hartzeak emakumeen garapen profesionalean eragina duela pentsatzen dute emakumeen % 64ak.
2. Denbora libreari erreparatuta, emakumeek astean zehar egunean 20 minutu gutxiago dute aisialdirako gizonak baino. Asteburuetan aldea ordubetekoa da.
3. Berdintasunaren aldeko jarreraren inguruan, jarrera aurrerakoiena dutenak hezkuntza-maila altuagoa eta diru sarrera altuagoa dutenek eta adinez gazteagoak direnek izan ohi dituzte.


Ultzamaldean genero-rol eta estereotipoek oraindik eragin handia dute emakume eta gizonen bizitzetan, eta horiek islatzen dira lanean, espazio publikoan, aisialdian, harremanetan, etxean eta eremu guztietan. Horrela berretsi dute Ultzamaldeko hainbat kiderekin izan dugun elkarrizketan.


Udal ordezkarien artean emakume eta gizonen presentzia orekatu xamarra da. Hala ere, alkatetzetan, legegaldi honetan, gizonak dira nagusi, baita kontzejuetako hautagaien artean ere. Aipatu beharra dago 2015-2019 legegaldian, lehen aldiz emakume alkate gehiago zeudela gizonak baino.

UDAL ORDEZKARIAK SEXUAREN ARABERA 2023-2027




KONTZEJUETAKO HAUTAGAITZAK SEXUAREN ARABERA (2023-2027)



1 Emakume bakarra da alkatea egun 

ALKATEAK SEXUAREN ARABERA

5 Gainontzeko 5 alkateak gizonak dira 

3. Gizonen eta emakumeen presentzia bizitza publikoan

- Adinez txikiak direnetik ikusten dute irakasleek neskak eta mutikoak talde desberdinetan biltzen direla gehien bat. Batez ere, Lehen Hezkuntzan hasten da banaketa eta Bigarren Hezkuntzan generoen banaketa nabarmena da. Genero disidentziak edo neska eta mutil normatiboak* ez izatea ere zigortzen da sozialki.
- Izan ere, haur eta gazteentzat ez dago erreferentzia askorik emakume eta gizon izateko eredu anitzei buruzkoak. Helduen artean, emakume eta gizonen arteko banaketa soziala dago arduetan eta espazioetan. Adibidez, guraso taldeetan (whatsapp) ia denak amak dira.
- Aisialdian, haurren kasuan, irteerak edo ez-ohiko jardueretan gehiago nahasten dira. Baina kirolean edo eskolaz kanpoko jardueretan ez horrenbeste. Adin-tarte ezberdinek elkarrekin ekintzak egiteko aukera egon arren, neska eta mutilen arteko nahasketa ez da horrenbeste ematen.
- Helduagoen artean antzekoa gertatzen da: gazte asanblada antolatzen, une honetan denak dira emakumeak, aldiz, jubilatuen artean, antolatzen, gehienak gizonak. Kirolean, neskak eskubaloian ibili ohi dira, eta aldiz, mutilak futbolean. Pilotan edo mendi irteeratan, haurretan eta helduetan gehiago nahasteko aukera egoten da.
- Oro har, bolondres lanetan (kultura batzordean, jaien antolaketan, guraso elkarteetan...) emakume asko ibiltzen dira lanean. Hau da, emakumeen inplikazio soziala handia eta aktiboa dela esan genezake. Ordezkeria politikoen artean ere emakume ugari daude. Gizonak kirolari edo baserriko lanei lotuagoak daude. Helburua litzateke batak eta besteak egiten duten lana balioan jarri eta espazio mixto gehiago sustatzea.

*Normatiboak: nornei, hau da, arau-sozialei erantzuten dioten pertsonak, neska eta mutil izateko modu onartuak jarraitzen dituztenak.

“Pena da ikustea nola genero-rol eta estereotipoek gure seme-alaben aukerak mugatzen dituzten oraindik: harremanetan, jatzeko moduetan, lan aukeratan, interesetan. Hezkidetzak lantzeko beharra dago eskolatan, eskolatik kanpo eta sare sozialetan. Horrez gain, presio handia dago rol eta estereotipo horiek segitzeko eta segitzen ez dituztenek presio handia bizitzen dute ”

Guraso taldeko baten hitzak

- Aisialdirako proposamenek garrantzi handia dute landa eremuan, komunitatea indartzeko ezinbestekoak baitira. Eskaintza hauek (kultura, kirola, parte hartzea, hezkuntza ez-formala...) berdintasunaren ikuspegitik lantzea ezinbestekoa da. Baina ez dira soilik haur eta gazteentzat zuzendu behar: berdintasunaren inguruan kontzientziatzeko beharra denok baitugu, emakume-gizon, haur-gazte-heldu, herri bateko nahiz bestekoek.
- Berdintasunaren lanketa hauek bultzatzeko oso lagungarria izango da langile publikoen laguntza eta elkarlana, baita herri mugimenduena ere.

02 NOLAKOA DA EGUNGO EGOERA ULTZAMALDEAN GENERO-BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ?



4. Emakumeen aurkako indarkeria matxista

- Azken urteotan aurrerapauso handiak eman dira emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurkako politikei dagokionez: legeak onartu dira (Istanbulgo Hitzarmenetik, nazioartean, Estatu mailako Itunak eta Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko Foru Legeak kasu).
- Zerbitzu berriak jarri dira martxan: Nafarroa mailan genero indarkeria artatzeko lantalde ibiltariak eta balioanitzak, sexu-indarkeria artatzeko zerbitzu espezifikoak, aholkularitza juridiko eta psikologikoak, tartean.
- Egun ez da beharrezkoa salaketa jartzea zerbitzuak eta eskubideak eskuragarri izateko, eta emakumez gain, bere zaintzapekoak, senideak eta adin-txikikoak ere artatzen dira.
- Hala ere, Ultzamako 2022ko diagnostikoan jasotzen den moduan, gaur egun oraindik itxaron zerrenda luzeak daude zerbitzuetan, zenbait emakumeri zerbitzuak ukatzen zaizkie eta biktimizazio bikoitza pairatzen da gehienetan. Egiturazko zapalkuntza baten isla da emakumeen aurkako indarkeria matxista, eta gizartearen balio aldaketa eta antolatze modua irauli gabe nekez gutxituko da indarkeria mota hau. Beraz, bitartean indarkeria matxista artatu eta kudeatzeko baliabide asko behar dira.
- Ultzamaldean 2019an egon zen sexu-indarkeria kasu batek asko ukitu zuen Ultzamako bailara. Baina kasu horrez gain, 2018an 3 kasu artatu ziren, 2019an 5 eta 2022an beste horrenbeste. Kontuan hartu behar da artatzen diren kasuak ez direla kasu guztiak. Nafarroan 2024 urtean 2.224 salaketa egin ziren, 2023arekin alderatuta % 6,36 hazi dira salaketak. Ultzamaldean, 2024an 11 kasu kudeatu dira Gizarte Zerbitzuetatik, horietatik 5k jarri zuten salaketa eta beste 6k ez.
- Emakumeen kontrako indarkeria gehiena familia giroan ematen da, bikotekide, bikote ohi edo senideen artean. Landa eremuak ekar dezakeen isolamendua arrisku faktore ere badela dio ikerketak.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ULTZAMAKO GALDETEGIKO EMAITZAK (2020)

2020an Ultzamaldeko emakumeen kontrako protokoloa egiteko diagnostiko bat egin zen. Elkarrizketa sakonak egin ziren 7 profesionalekin eta 38 emakumek erantzun zuten galdetegia zabaldu zen.



- Galdetegia erantzun zutenen **% 50** emakumeen kontrako indarkeriaren testigu izan da.



- **% 33k** tratu txarrak bizi izan dituztela aitortu zuen.



- **% 63k** jazarpen sexistaren bat bizi izan duela aitortu zuen. Sexuala, fisikoa, soziala edo ekonomikoa.

4. Emakumeen aurkako indarkeria matxista

- Herritarrekin egindako lan saioan parte hartu duten herritar gehienek ezagutzen dute bailaretako herrietan emandako emakumeen kontrako erasoren bat, edo jazarpenen bat.
- Batzuen ustez publikoki diskurtsoak emakumeak babesten dituen arren, arlo pribatuan, intimitatean, edo zenbait espazioetan ohikoak dira emakumeak gutxiesteko jarrerak edo lizunkeriaz, sexualki jazartzen dituzten portaerak.
- Elkarrizketatuek noizbait bortxaketen berri izan dute azken 7 urteetan, baita lan giroan ematen diren jazarpenen berri ere. Familia barruko indarkeria kasuak ere identifikatu dituzte inoiz.
- Identifikatzen duten alderdi positiboa da, komunitateak, herritarrek, normalean ondo erantzuten dutenaren inpresioa dutela, eta Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasun teknikariaren interbentzioak positiboak izaten direla. Zerbitzu hauek elkarlana eta bidelaguntza eskaintzen dutela sentitzen dute.
- Txosten honek forma hartu duen urtean (2025) Brigada Moreak izeneko neska talde antolatu bat dago Ultzamako bailaran, indarkeria matxistaren kontra erantzun eta salatzeko protokoloa berri eta kontzejuetan zabaltzen ari direna. Eskuz esku ari dira Berdintasun Zerbitzuarekin lanean. Horrez gain, herrietako jai batzordeekin ere lan egin nahi dute.
- Aurrez, Basaburuan ere emakume taldeak daude, Bilgune Feminista eta Basandereok kasu. Gauzak horrela, gaia lantzen da, bai herri mugimendutik, bai eta mankomunitatetik ere.
- Mankomunitateak Nafarroako BAIT Zerbitzuarekin harremana dauka kasuen deribazioa eta jarraipena egiteko. (*Biktimen Arreta Integralerako Taldea*)

“Neska batzuk elkartu gara gogoekin. Berdintasun Zerbitzuaren laguntzarekin formakuntza bat jaso dugu, eta orain gu gara herriz herri erasoen kontrako protokoloa esplikatzen ari garenak. Brigada Morea gara, eta laguntzeko prest gaude”

Brigada Moreko kide baten hitzak

- Hala ere, azpimarratzekoa da genero indarkeriaren biktimei zuzendutako zerbitzuak ugaritu diren arren, oraindik eskaria eskaintza baina handiagoa dela, eta Nafarroa iparralde osoan ez dagoela zerbitzu egoitzarik: dagoena zerbitzu ibiltaria da.
- Horrez gain, indarkeria matxistatik bizirik ateratzen direnen erreparaziorako bidea luzea da, eta ez da zertan soilik gizarte zerbitzuetatik egin behar. Osatzeko eta bizitza berregiteko emakumeen saretzeak, ahalduntzerako espazio kolektiboak, komunitatearen babesa lantzeak, “zurumurruei” eta “epaiketa subjektiboai” aurre egitea bezalako egitasmoak martxan jartzea proposatzen da.
- Emakumeen kontrako indarkeria arazo estrukturala denez, komunitate osoaren arazoa da, horregatik lanketa herritar guztiekin egitearen garrantzia azpimarratu da, komunitateak asko prebenitu, detektatu, babestu eta erreparatu dezakeelako, batez ere zerbitzu publikoak horren sakabanatuta dauden landa eremu batean.
- Landa eremuak bere bertuteak edo oztopoak izan ditzake, “kotilleo” eta “epaiketetatik” babes kolektibora salto egitea da proposatzen dena.

03 ZER EGIN DUGU ORAIN ARTE ETA ZEIN BALDINTZA DITUGU?

- 1. Berdintasun politikak Ultzamaldean**
- 2. Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa**






03 ZER EGIN DUGU ORAIN ARTE ETA ZEIN BALDINTZA DITUGU?

1. Berdintasun politikak Ultzamaldean

- Ultzamaldeko mankomunitateak 2009an sortu zuen Berdintasun Zerbitzua. 2017an berdintasunerako teknikari postua sortu zuen eta 2025 urtera arte jardun erdian egon da. Egun, jardun osoko lanpostua da, emakume eta gizonen berdintasunerako ezagutza espezifikoa baloratzen duena.
- Urte hauetan bi Berdintasun Plan garatu dira, hainbat diagnostiko eta ikerketa egin dira, langile publikoentzako prestakuntzak antolatu dira, mugimendu feministarekin batera, jarduerak eta elkarlana egin da, bailarako emakumeentzako ahalduntzerako ikastaroak antolatu dira, bai eta hezkidetzeta-saioak ikastetxeetan eskaini ere.
- Horrez gain, nabarmentzekoak dira emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko egindako sentsibilizazio kanpainak, ikastaroak, formakuntzak eta protokoloak.
- Lan guzti horiek posible egiteko ezinbestekoa izan da hainbat eragilerekin eman den koordinazio lana Berdintasun Batzordeetan. Ondoko zutabeen ikus daitezke berdintasun politikak koordinatzeko martxan egon diren egiturak eta behean zerbitzua kudeatzeko egon den aurrekontua. Aurrekontua, oro har, mantendu da, pandemia osteko urtean izan ezik.

Berdintasun Zerbitzuaren aurrekontua



03 ZER EGIN DUGU ORAIN ARTE ETA ZEIN BALDINTZA DITUGU?

2. Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa

Berdintasunerako II. Planak 6 urteko iraupena zuen: 2017-2022 bitartekoa. Lau esku-hartze zituen, 10 ildo estrategiko, 25 helburu eta 86 ekintza.

I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA	2. ESKU-HARTZE ESPARRUA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
<p>1. ildo estrategikoa: genero berdintasunerako udal egiturak.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Mankomunitatean genero mainstreaming-aren estrategia sartzeko gaikuntza tekniko eta politikoa.</p> <p>3. ildo estrategikoa: Udal lanen prozedurak emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipiotik.</p> <p>4. ildo estrategikoa: Genero berdintasuna udalerrriaren edo/eta lurraldearen garapen iraunkorraren zati gisa.</p>	<p>1. ildo estrategikoa: Emakumeen kontrako indarkeria mankomunitatean.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Indarkeriarik gabeko bizitza emakumeendako.</p>
3. ESKU-HARTZE ESPARRUA: ZAINZA, ERANTZUNKIDETASUNA ETA EGINKIZUNAK BATERATZEA	4. ESKU-HARTZE ESPARRUA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA BALIOEN ALDAKETA
<p>1. ildo estrategikoa: Herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea emakumeen eta gizonen zaintza eta bizitza-pertsonala, lana eta familiaren kontziliazio erantzunkidearen etikaren garapenaren bidez.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Mankomunitatean denborak, espazioak eta zaintzak kudeatzeko eredu berriak.</p>	<p>1. ildo estrategikoa: Emakumeen herritartasun osoa, haien ahalduntzearen bidez.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balio soziala, balio patriarkalen balio sozialen eraldaketaren bidez.</p>

2. Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa

Berdintasunerako II. Planak jasotzen zituen helburuak ikus daitezke taula honetan:

PROGRAMA-HELBURUA	JARDUKETA
1.1. Genero berdintasunerako Udal arloak eta unitateak	4
1.2. Mainstreaming-a edo genero ikuspegi integratua sartzeko prestakuntza espezializatua	2
1.3. Genero ikuspegia mankomunitateko arauen produkzioan, planetan, programetan eta proiektuetan, garrantzi eta eragin handikoa	4
1.4. Plangintza eta aurrekontuen ebaluaketa	2
1.5. Genero-ikuspegia txertatzea langileen kudeaketan.	4
1.6. Informazioaren kudeaketa eta komunikazio-politika	3
1.7. Kontratazioa, diru-laguntzak eta hitzarmenak	4
1.8. Emakumeen eta gizonen partaidetza eta ordezkarietza orekatua	1
1.9. Lurraldeko edo udalerriko generoaren azterlan sozioekonomikoa	1
1.10. Lurraldearen garapen iraunkorrerako proiektu, plan eta jarduketa garrantzitsuetan genero ikuspegia sartzea	1
1.11. Emakumeen eta gizonen berdintasunezko partaidetza eskualdearen baliabide eta zerbitzuetan	4
2.1. Mankomunitateko eta lurraldeko baliabideen arteko koordinazioa eta prebentzioa eta detekzioa indartzea	3
2.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan lan egiten duten mankomunitateak langileak trebatzea	3
2.3. Baliabide hauek herritarrei, batez ere emakumeei hurbiltzea eta bizilagunen beharrei egokitzen direla ziurtatzea	5
2.4. Herritarren prebentzioa eta sentsibilizazioa emakumeen aurkako indarkeriaren arloan	4
2.5. Udalerraren eta/edo eskualdearen errealitatei egokituriko txosten, azteketa eta ikerlanak, genero-indarkeriaren ezagutzan aurrera egiteko	2
2.6. Toki entitatea genero indarkeria deuseztatzeko programen eta proiektuen bultzatzaile gisa	2
3.1. Zaintza eta kontziliazio erantzunkidearen etika Mankomunitatean	1
3.2. Mankomunitateko lan-plana egitea zaintza eta kontziliazio erantzunkidearen etika sustatzeko	5
3.3. Mankomunitateko praktikan pertsonak zaintzeko lanen kudeaketa	3
3.4. Jarduketa berritzaileak zaintza eta kontziliazio erantzunkidearen Etika garatu eta sendotzeko	1
4.1. Emakumeen ahalduntze pertsonala	6
4.2. Emakumeen ahalduntze kolektiboa eta generokoa	12
4.3. Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea gizarte eta politika munduan	5
4.4. Haien sexuaren arabera pertsonen egotzitako genero-rolak eta estereotipoak	3

2. Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa

Jarraian dauden grafikoetan Berdintasunerako II. Planaren betetze-maila ikus daiteke. Planak zituen 84 ekintzetatik 39 bete dira, % 45a, eta beste % 20a erdizka bete da. Gehien garatu den esku-hartzea emakumeen kontrako indarkeriarena izan da. Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean lan handia egin da.


Garatu gabe geratu diren ekimenak, gehien bat udalen jarduerari lotutakoak dira, hau da, udal jardueran eta prozeduratan genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoak.

Plan osoa garatzeko zailtasun nabarmenena izan da Berdintasun teknikaria jardun erdian egon dela orain arte. Hala ere, egoera hau aldatu da 2025ean eta egun jardun osoan dago.


Zaintza eta erantzunkidetasunaren inguruko esku-hartzearen erdia garatu da, eta azken urteotan indarra hartu duen esku-hartzea da “zaintzen krisiak” ekarri dituen aldarrikapenak direla eta.

Azkenik, emakumeen ahalduntzearekin lotutako ekimenek ere fruituak eman dituzte, nahiz eta denak garatzeko gaitasunik ez den egon.

PLANAREN BETETZE-MAILA



ARDATZ BAKOITZAREN BETETZE-MAILA



2. Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa

A. Tokiko Gobernamentua eta genero-zeharkatasuna

Esku-hartzearen helburua izan da Ultzamaldeko tokiko administrazioan (Mankomunitatean eta udaletan) Berdintasun politikak kudeatzeko baliabideak ezartzea, langile publikoei berdintasunean prestakuntza ematea eta prozedura administratiboetan genero-ikuspegia txertatzea, besteak beste.

Berdintasun zerbitzua Gizarte Zerbitzuen barruan sortu zen jardun erdiko teknikariarekin, eta egun jardun osoko teknikaria dago, berdintasun gaietan ezagutza espezifikoa duena.


Aipagarriak diren prestakuntza ugari egin dira 6 urte hauetan: hizkuntza ez-sexistari lotuak (gida bat ere sortu zen), kontratazio publikoaren bidez berdintasuna sustatzeari buruzkoak (15 orduko ikastaroa), baita indarkeria matxistari aurre egiteko prestakuntzak ere. Ordezkaritza politikoei legealdi bakoitzean eskaini zaie 8 orduko ikastaroa, eta mankomunitateko eta udaleko langileei urtean 10-15 orduko prestakuntza. Gainera, beste administrazioetako langileentzako formakuntza ere eskaini da, osasun etxearentzat, esaterako.

Horrez gain, datuak sexuaren arabera jaso eta genero-arrakalak identifikatzeko ariketa egin da hainbat politika arlotan (kirola eta kultura, esaterako). Kontratazio publikoan berdintasunaren ikuspegia sartzeko hainbat klausula sartu dira, baina ez sistematikoki eta ez zaie jarraipenik egin. Genero eraginaren aurretiazko ebaluaketak ere ez dira egin ordenantzak onartzerako orduan. Hala ere, hutsune nabarmenena koordinazio iraunkorraren falta izan da, batez ere udalekin.

Planean jasotzen zen erronketako bat berdintasunerako aurrekontua % 7ra iristea zen. II. Planean zehar % 5 ingurukoa izan da, baina 2025etik aurrera, ziurrenik % 7ra iritsiko da.



BERDINTASUN GAIETAN ESKAINITAKO PRESTAKUNTZAK



2. Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa

B. Emakumeen kontrako indarkeria

Gehien garatu den esku-hartze eremua izan da emakumeen kontrako indarkeriari dagokiona.

Ondoen funtzionatu duena koordinazioa bera da. Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko elkarlana iraunkorra izan da. 2020an emakumeen kontrako indarkeriaren artatzea aztertzen zuen diagnostikoa egin zuen Berdintasun Zerbitzuak. Ondoren, protokoloak garatu dira, bai mankomunitate barneko zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko, bai eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko (osasun zentroa, tokiko polizia, ikastetxeak, gizarte zerbitzuak, eta abar). Horrez gain, Iruñea eta Nafarroa iparraldeko BAIT (*Biktimen Arreta Integralerako Taldea*) zerbitzuarekin hiru hilean behineko koordinazioa egin da.

Festetan eraso sexistei erantzuteko protokoloa herriz herri aurkeztu da eta zabalpena egin da. Jardunaldi eta mintegi espezifikoetan egin da lanketa profesionalekin.

Baina badira egin gabe geratu diren ekimenak ere, esaterako “genero indarkeriaren baliabideen mapa” edota prestakuntza plan espezifikoa indarkeriaren ingurukoa. Lehen pausoak gai hauek lantzeko eman dira, prestakuntza beharren diagnostikoa kasu.


Bestetik, adin txikikoen babeserako sarean hurren kontrako indarkeriak lantzen hasiak daude, batez ere detekzio eta prebentzioa, eta hauei ere zerbitzuak eskaintzen zaizkie.

Azpitarratu beharreko beste praktika on bat emakumeen aurkako indarkeriaren artatzea jasotzen duten urteko memoriak dira. Txosten hauen bidez kasuen jarraipena hobetu eta zerbitzuak hobetzeko aukerak identifikatzen dira.

Azkenik, prebentzio aldetik ikastaro anitz egin dira, batez ere emakumeei zuzenduak, baina ikastetxeekin, gazteekin, mugimendu feministarekin eta jai batzordeekin elkarlana ere egin da ildo honi begira.



BERDINTASUN ZERBITZUAN EGINDAKO KARTELAK



2. Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa

C. Zaintza, erantzunkidetasuna eta eginkizunak bateratzea

Norbanakoen artean eta etxeetan erantzunkidetasuna bultzatzeko ezkontzetan banatzeko hitzarmen eredu bat sortu zen, ezkonkideek berdintasunaren aldeko konpromisoak har zitzaten.

Bestetik, Ultzamaldeko Zaintzen Aldeko ituna sinatu zuen mankomunitateak 2023an. Udal guztiek adierazi dute zaintza krisia gainditzeko nahia eta konpromisoa behin baino gehiago era formalean.

Ultzamaldean zaintzaren gaiak kezka sortzen du, eta horrela jaso zen 2022an egindako diagnostikoan “Zaintzen inguruko diagnostikoa”. Bertan, hainbat herritarrek, guraso taldeek eta mugimendu feministako kideek hartu zuten parte. Horrez gain, Gizarte Zerbitzuetako langileek, Etxez etxeko langileek eta langile profesional autonomoek ere hartu zuten parte ikerketan.


Esku-hartze ildo honetan aurreikusten ziren ekintzen erdia garatu dira. Esaterako, zaintzen inguruko trebakuntza zehatzik ez da egin, nahiz eta etxeko-langile edo internentzako ikastaroren bat antolatu den, baita familia langileentzako ere. Gurasoentzako ikastaroak ere antolatu dira, zaintzaz haratago, berdintasuna eta tratu onak sustatzeko programaren bidez. Senideei atsedean emateko programarik ere ez da sortu eta denborak kudeatzeko modu berriak ere ez dira ikertu.

Aurreikusi gabeko ekintzak ere garatu dira, herritar eta familien eskaerei erantzuteko, adibidez, 0-3 urte bitartekoentzako espazio bat ere eskaini da familia hauen formakuntzarako.

Hala ere, 2022ko diagnostikoan identifikatu diren hainbat ekintzei bide emateko aukera dago 2025etik aurrera.



BERDINTASUN ZERBITZUAK EGINDAKO IKERKETA 2022



2. Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa

D. Emakumeen ahalduntzea, parte hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa

Emakumeen ahalduntzea sustatzeko hainbat ekimen eta jarduera antolatu dira sei urte hauetan. Tailer eta hitzaldiak publiko ezberdinei zuzenduak izan dira: euskaraz nahiz gazteleraz eskaini dira, zoru pelbikoa lantzeko tailerra, autodefentsa ikastaroa neska gazteentzat, emakume migratuentzat ere ikastaro espezifikokoak antolatu dira.

Ikastaro, tailer, literatura solasaldi eta zineforumetan gaiak anitzak eta gaurkotuak izan dira, eta guztiak atera dira aurrera.

Hala ere, ez da eskaintza egituraturik eskaini, eta Ahalduntze Eskola egituratua antolatzeko denbora eta baliabideak falta izan dira.

Parte hartze soziopolitikoari dagokionez, aipagarria da mugimendu feministarekin izandako elkarlana. Hauetariko asko “martxoak 8” emakumeen egunera bideratuak egon dira, baina baita indarkeria matxistaren prebentzioan edo bestelako kanpaina zehatzetan ere. Arrakasta izan duen ekimena Jardunaldi feministak antolatzea izan zen, 2023an. Parte hartze handia izan zen eta punta puntako hizlari eta eztabaidak eman ziren.

Urriaren 15ean, landa eremuko emakumeen egunean lanketa bereziak egiten dira, baita landa eremuko emakumeen eskubideen aldeko adierazpen instituzionalak ere.

Emakumeen ahalduntzea sustatzeko udal eta mankomunitateko hainbat arlok ekintza zehatzak antolatzen dituzte, Kulturatik edo Kiroletik, esaterako. Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuen artean ere kanpaina bateratuak egin izan dira neska gazteengana iristeko, lodifobiari buruzko lanketaren modukoak, ikastetxeekin batera aurrera atera direnak.



URTEKA	EKIMEN KOPURUA
2018	5
erakusketa	1
literatura solasaldia	1
tailerra	3
2019	3
erakusketa	1
literatura solasaldia	1
tailerra	1
2020	8
bakarrizketa-ipuina	1
erakusketa	1
hitzaldia	1
tailerra	1
topaketa	2
zineforuma	2
2021	9
bakarrizketa-ipuina	1
erakusketa	1
literatura solasaldia	1
tailerra	3
topaketa	1
zineforuma	2
2022	4
bakarrizketa-ipuina	1
jardunaldiak	1
literatura solasaldia	1
zineforuma	1
2023	7
hitzaldia	1
jardunaldiak	1
proiektua	1
zineforuma	4
Total orokorra	36


2. Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa

ONDORIOAK ETA IKASPENAK

- II. Planak aurreikusten zuen iraupena egoki baloratzen da. 6 urteko iraupena izateak aukera ematen du luzera begirako lanketak egiteko.
- Hala ere, Planaren egitura konplikatu xamarra zen, baita erabilitako hizkuntza ere. Hurrengo planak egitura sinpleagoa eta ulergarriagoa izatea nahi da.
- Berdintasun politiketan aurrera egiteko ezinbestekoa izan da komunitatearen eta arduradun politikoen inplikazioa. Horrez gain, 2025etik aurrera baliabideak ugaritzeak bultzada handia emango die berdintasun politikari.
- Herriak oso sakabanatuta daude eta hori zailtasun erreal bat da berdintasun politikak garatzeko. Horrek koordinazioari (presentzialari eta telematikoari) arreta gehiago jartzea eskatuko du.
- Bestetik, inguruko eskualdeekin elkarlana egiteko aukerak ugaritu dira azken urteetan inguruko eskualdeetako Berdintasun Zerbitzuak indartu direlako. Horrek aukera berriak irekitzen ditu zenbait zerbitzu edo ikastaro elkarrekin antolatzeko.
- Eskualdearen ezaugarriak direla medio, pertsonen bakardadea eta isolamendua, garraioa, komunikazioa eta harremanak, landu beharreko ildoak izango dira. Proposamena da III. Berdintasun Planaren bidez komunitatea indartzeko ekintzak garatea.
- Azkenik, administrazio barruko koordinazioa eta udalen arteko elkarlana ezinbestekoa izango da administrazioa barrutik eraldatzeko. Horretarako, alkateekin eta udal idazkariekin harreman iraunkor bat izatea proposatzen da, urtean behinekoa bada ere.




PLAN BERRIAREN EZAUGARRIAK



04 GENERO-BERDINTASUNA BULTZATZEKO III. PLANA

1. Planaren lau erronkak
2. Planaren egitura: helburuak eta ekintzak
3. Plana kudeatzeko sistema
4. Komunikazioa



04 GENERO-BERDINTASUNA BULTZATZEKO III. PLANA

1. Planaren lau erronkak

Berdintasunerako III. Planak 7 urteko iraupena izango du: 2026-2032 bitartekoa. Planak lau erronkari erantzun nahi die, 13 helburu eta 61 ekintzaren bidez:

1. ERRONKA: ULTZAMALDEKO ERAKUNDEAK BARRUTIK ERALDATZEA	2. ERRONKA: INDARKERIA MATXISTAREKIN AMAITZEA
<p>Ultzamaldeko emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko administrazioa barrutik eraldatu behar da. Batetik, Berdintasun politikak sustatzeko baliabideak jarri behar dira, berdintasun gaien inguruan prestakuntza jaso, egiteko moduetan genero-ikuspegia txertatu eta udalak sortzen dituen zerbitzu eta programen bidez berdintasuna sustatu. Guzti horretarako administrazio barruko langileen arteko koordinazioa eta udal ordezkarien artekoa hobetuko dugu, bakoitzaren funtzioak eta koordinaziorako denborak aurreikusiz.</p>	<p>Indarkeria matxista gisa ulertzen da emakumeen aurkako indarkeria, hau da, historikoki emakumeek pairatutako gutxiespenen eta diskriminazioen ondorioz eratorritako indarkeria, eta genero-sistemari erantzuten ez dioten gorputzen kontrako indarkeria. Indarkeria hau giza eskubideen aurkako eraso larria da eta gure herritarren arteko elkarbizitza arriskuan jartzen duen bortizkeria da.</p> <p>Indarkeria horri aurre egiteko kultura aldaketan eta bizi-baldintzen hobetzean eragin nahi dugu, komunitatea inplikatur, zerbitzuak hobetuz eta indarkeria hori pairatu dutenen indarra berreskuratuz.</p>
3. ERRONKA: EMAKUMEEN BIZIBALDINTZAK HOBETZEA	4. ERRONKA: BERDINTASUNA ERAKITZEKO HERRITARRAK ETA ERAKUNDEAK INPLIKATZEA
<p>Planaren helburua emakume eta gizonak beren bizitzak garatzeko aukera berdinak izatea da. Horretarako, ordea, denak ez gara baldintza berdinetik abiatzen. Emakumeen enplegurako aukerak, pobrezia tasak, zaintza lanen zama, ezberdinak dira gizonekiko eta hori berretsi du diagnostikoak. Baldintza guzti horiek parekatzeko emakumeen bizi-baldintzak hobetzen inziditu nahi dugu Planaren bidez.</p>	<p>Emakume eta gizonen arteko berdintasun ezaren ondorioak gizarte guztiak pairatzen ditu, batez ere emakumeek. Inori ez zaio komeni etxeko emakumeek dirusarrerak izateari uztea senide bat zaindu behar izateagatik, edo inork ez du nahi inguruko emakumeek indarkeria matxista pairatzea. Denok pairatzen dugu eta denon ardura da. Horregatik, erakunde eta herritar guztiak inplikatu nahi ditugu berdintasunaren aldeko bidean.</p>

04 GENERO-BERDINTASUNA BULTZATZEKO III. PLANA

2. Planaren egitura: helburuak eta ekintzak

1. erronka: ULTZAMALDEKO ERAKUNDEAK BARRUTIK ERALDATZEA	1.1. BERDINTASUNA SUSTATZEKO BALIABIDEAK ETA GAITASUNA HANDITZEA	6
	1.2. ADMINISTRAZIOAREN EGITEKO MODUETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA	11
	1.3. BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO ELKARLANERAKO ESPAZIOAK EGONKORTZEA	3
2. erronka: INDARKERIA MATXISTAREKIN AMAITZEA	2.1. INDARKERIA MATXISTAREN AURKA HERRITARREKIN SENTSIBILIZAZIOAN, PREBENTZIOAN eta ERREPARAZIOAN LAN EGITEA	3
	2.2. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ARLOKO ESKU-HARTZEAK HOBETZEA ETA ULTZAMALDEKO ETA NAFARROAKO ZERBITZUEKIN KOORDINATZEA	5
	2.3. INDARKERIA MATXISTA BIZI IZAN DUTEN EMAKUMEEN ERREPARAZIOAN LAN EGITEA ETA ZERBITZUAK UGARITZEA	3
3. erronka: EMAKUMEEN BIZIBALDINTZAK HOBETZEA	3.1. ENPLEGUEN ETA ZERBITZUEN IRISGARRITASUNA BULTZATZEA	7
	3.2. ZAINZTA LANAK BIRBANATZEA ETA ZAINZTAILEEN BALDINTZAK HOBETZEA	7
	3.3. EMAKUMEEN KOLEKTIBO EZBERDINENTZAKO AHALDUNTZERAKO PROGRAMAK EGONKORTZEA	5
4. erronka: BERDINTASUNA ERAIKITZEKO HERRITARRAK ETA ERAKUNDEAK INPLIKATZEA	4.1. HAUR, GAZTE ETA FAMILIEKIN BERDINTASUNA BULTZATZEA	4
	4.2. GENERO- ROL ETA ESTEREOTIPOAK APURTZEN DITUZTENAK BABESTU ETA SARETZEA	3
	4.3. MUTIL ETA GIZONEKIN BERDINTASUNA ERAIKITZEA	1
	4.4. HERRITARRAK BERDINTASUNEAN INPLIKATZEA	2

1. erronka: ULTZAMALDEKO ERAKUNDEAK BARRUTIK ERALDATZEA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA
1.1. BERDINTASUNA SUSTATZEKO BALIABIDEAK ETA GAITASUNA HANDITZEA	1.1.1. Berdintasun politikak garatzeko Berdintasun Zerbitzuak beharrezkoak dituen baliabide pertsonalak eta ekonomikoak bermatzea, hau da, jardun osoko teknikari espezializatua eta mankomunitateko aurrekontuaren % 7a gutxienez.	LEHENDAKARITZA
	1.1.2. Ordezkarri politiko guztientzako berdintasun politiken inguruko trebakuntza eskaini legealdian zehar, gutxienez 15 ordukoa, genero-zeharkakotasunaren eta berdintasun politika espezifikoen ingurukoa (indarkeria matxista barne).	LEHENDAKARITZA
	1.1.3. Udaleko eta mankomunitateko teknikari nahiz langileentzako berdintasun gaietan trebatzeko prestakuntza plan bat diseinatu eta martxan jarri, gutxienez urtean 10 orduko formakuntza eskaintza progresiboa eta lanpostuei egokitua eskainiko duena.	BERDINTASUNA
	1.1.4. Berdintasunari buruzko prestakuntzen jarraipena egiteko tresna sortu: Ultzamaldeko mankomunitateko langileen, udaletako en eta ordezkari politikoen berdintasun gaietako formakuntzei jarraipena eman eta aurrera begirako prestakuntzak hobeto planifikatzeko.	BERDINTASUNA
	1.1.5. Pilula informatiboak bidali berdintasunean egiten ari garen lanaren inguruan eta interesgarriak diren materialak zabaltzeko Mankomunitate mailan gutxienez urtean behin.	BERDINTASUNA
	1.1.6. Berdintasun politikekiko eta genero-zeharkakotasuna administrazioaren jardueran guztietan txertatzeko konpromisoa jasotzen duen adierazpen instituzionala onartu mankomunitatean legealdi bakoitzean.	LEHENDAKARITZA

1. erronka: ULTZAMALDEKO ERAKUNDEAK BARRUTIK ERALDATZEA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA
1.2. ADMINISTRAZIOAREN EGITEKO MODUETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA	1.2.1. Ultzamaldeko emakume eta gizonen egoera eta behar espezifikoak identifikatzeko informazioa (eta datuak) sexuaren arabera bereiziak jaso (bai inprimakietan, bai eta tresna informatikoetan).	ALKATETZAK
	1.2.2. Erabaki organoetan, epaimahaietan eta saridunen artean emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua bultzatu, legeak dioen bi sexuen ordezkaritza % 40-60 artekoa izan dadin.	ALKATETZAK
	1.2.3. Hizkuntza ez-sexista sustatzeko urtean behin Udalen eta mankomunitatearen dokumentazioa eta web orriena aztertu eta hobekuntzarako gomendio txostena egin.	BERDINTASUNA
	1.2.4. Kontratazio publiko arduratsuak eskatzen dituen berdintasuna sustatzeko irizpideak kontratuetan sartzen joateko esperientzia pilotuak abiatu: urtero gai ezberdin bateko kontratu bat aztertu genero-ikuspegitik eta berdintasun klausulak ezarri berdintasun zerbitzuaren laguntzarekin.	IDAZKARITZAK
	1.2.5. Kontratazio publiko arduratsuen prozesuan berdintasun klausulak txertatzeko jarraibideak adostu teknikarien artean eta mankomunitatean eta Ultzamaldeko udaletan onartu.	IDAZKARITZAK
	1.2.6. Dirulaguntzetan berdintasun klausulak txertatu, hobetu eta jarraipena egin.	IDAZKARITZAK
	1.2.7. Udal-ordenantzen genero eraginaren aurretiazko ebaluaketaren prozedura zehaztu, proba pilotuak egin eta jarraibideak sortu.	IDAZKARITZAK
	1.2.8. Hirigintza, basogintza eta lurralde antolamenduko arauetan genero eraginaren aurretiazko ebaluaketak egiteko ikasketa-ekintza proiektuak garatu eta jarraibideak adostu.	ARKITEKTOA
	1.2.9. Mankomunitateko aurrekontu proposamenaren espedientean eta exekuzio txostenean taula bat sartu zuzenean berdintasun politikei zuzendutako aurrekontuari buruzkoa, zeharka berdintasuna sustatzen duten gastuei buruzkoa eta genero-ikuspegitik lanketarik ez duen aurrekontuarena.	LEHENDAKARITZA
	1.2.10. Mankomunitateko langileen kudeaketari dagokionez, 5/2015 Enplegu publikoen oinarrizko estatutuak ezartzen duen langileen kudeaketan sexuen arteko aukera berdintasuna sustatzeko barne-diagnostikoa eta plangintza egin langileen ordezkariekin negoziatua, era progresiboan.	LEHENDAKARITZA
	1.2.11. Administrazioaren jardueran genero-ikuspegia txertatzeko egindako lanak kontsolidatu eta balioan jartzeko Berdintasunerako-ordenantza onartu Ultzamaldeko udaletan edo mankomunitatean.	LEHENDAKARITZA

1. erronka: ULTZAMALDEKO ERAKUNDEAK BARRUTIK ERALDATZEA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA
1.3. BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO ELKARLANERAKO ESPAZIOAK EGONKORTZEA	1.3.1. Berdintasun Batzordeak urtean lau aldiz elkartzen jarraitu. Bertan udaletako berdintasun zinegotziak, herrietako eragileak, mugimendu feminista, berdintasun teknikaria eta beharrezkotzat jotzen diren bestelako teknikariek hartuko dute parte. Espazio horren helburua izango da Berdintasun Politikak herrietako beharretara egokitzea.	LEHENDAKARITZA
	1.3.2. Administrazioaren jardueran genero-ikuspegia txertatu eta Berdintasun Planaren garapena koordinatzeko mahai-teknikoa elkartu gutxienez urtean bi aldiz.	BERDINTASUNA / KULTURA / EUSKARA / KIROLA / GIZARTE ZERBITZUAK / CEDERNA
	1.3.3. Udal-idazkariekin prozeduretan genero-ikuspegia txertatzeko, Nafarroako 17/2019 Berdintasunerako Foru Araueko betebeharrei jarraipena egin eta aholkularitza emateko urtean behin bilera egin.	BERDINTASUNA

2. erronka: INDARKERIA MATXISTAREKIN AMAITZEA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA
2.1. INDARKERIA MATXISTAREN AURKA HERRITARREKIN SENSIBILIZAZIOAN, PREBENTZIOAN eta ERREPARAZIOAN LAN EGITEA	2.1.1. Herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak egin emakumeen kontrako indarkeria matxistaren ondorioek ekartzen dituzten kalteak ikusarazi eta kontzientziatzeko.	BERDINTASUNA
	2.1.2. Indarkeria matxistaren kontrako jarrera eta erantzun publikoak indartu eta zabaltzea mugimendu feministarekin elkar lanean.	BERDINTASUNA
	2.1.3. Bailara bakoitzari egokitutako indarkeria matxistari aurre hartzeko prozesuak abiatu: prebentzioan, kasuen kudeaketan eta erreparazioan trebatzeko. Ulertzen baitugu komunitatea dela askotan babesa eta erreparazio handiena eskaini dezakeen baliabidea.	BERDINTASUNA
2.2. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ARLOKO ESKU-HARTZEAK HOBETZEA ETA ULTZAMALDEKO ETA NAFARROAKO ZERBITZUEKIN KOORDINATZEA	2.2.1. Emakumeen kontrako indarkeria matxista kasuen eta haien zaintzapean dauden haurren kasuen detekzioa hobetzeko Ultzamaldeko langile publikoentzako detekzio eta deribazio egokirako prestakuntza eta informazioa eskaini, eta aukera badago, prestakuntzak egiteko derrigortasuna ezarri.	BERDINTASUNA
	2.2.2. Ultzamaldeko mankomunitateko indarkeria matxistaren kontrako protokoloari jarraipena egin eta kasuen koordinazioak hobetzeko mahai-teknikoa urtean bi aldiz elkartu.	GIZARTE ZERBITZUAK
	2.2.3. Nafarroako Indarkeria matxisten biktimentzako zerbitzuetara kasuak deribatu, jarraipena egin eta koordinatzeko bilerak egin urtean hirutan, BAITekin eta osasun zentroarekin.	BERDINTASUNA
	2.2.4. Kasuen jarraipenerako urteroko memoriak egin eta zabaldu: emakumeen aurkako indarkeria matxista kasuen jarraipena egin, arazoaren dimentsioaz jabetu eta neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.	GIZARTE ZERBITZUAK
	2.2.5. Indarkeria matxistaren kontrako protokoloak eta zerbitzuak egokitzen eta eguneratzen joan sortzen diren beharrei eta lege aldaketei.	BERDINTASUNA
2.3. INDARKERIA MATXISTA BIZI IZAN DUTEN EMAKUMEEN ERREPARAZIOAN LAN EGIN ETA ZERBITZUAK UGARITZEA	2.3.1. Indarkeria matxista bizi izan dutenentzako babes talde kolektiboak edo ekintza kolektiboak antolatu Ultzamaldean edo inguruko eskualdeekin elkarlanean.	BERDINTASUNA
	2.3.2. Eraso matxistak pairatu dituztenen testigantzak eta errelatoak babestu eta ikusarazi herritarren artean.	BERDINTASUNA
	2.3.3. BAIT zerbitzuak hobetu eta Nafarroa iparraldean zerbitzuak sortzeko lanketa politiko eta teknikoak egin inguruko bailarekin elkarlanean.	LEHENDAKARITZA

3. erronka: EMAKUMEEN BIZIBALDINTZAK HOBETZEA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA
3.1. ENPLEGUEN ETA ZERBITZUEN IRISGARRITASUNA BULTZATZEA	3.1.1. Emakumeen (neskatilen, haurdun dauden emakumeen, pertsona nagusien, emakume migratuen...) osasun eskubideak bermatzeko Osasunbideako baliabideekin koordinatu.	GIZARTE ZERBITZUAK
	3.1.2. Emakumeen (neskatilen, haurdun dauden emakumeen, pertsona nagusien, emakume migratuen...) osasun eskubideak bermatzeko Osasunbideari beharrezko baliabideak ugaritzeko eskatu; izan geriatría zerbitzua, emagina edota pediatria besteak beste.	LEHENDAKARITZA
	3.1.3. Mankomunitateko komertzioak etxeetara iristeko enplegu babestuz osatutako proposamenak probatu.	GIZARTE ZERBITZUAK
	3.1.4. Emakumeen enplegurako aukerak ugaritu eta lan-baldintza duinak sustatu sektore anitzetan.	CEDERNA/GARALUR
	3.2.5. Bailara bakoitzean Jubiloteka zerbitzu ibiltaria eskaini.	GIZARTE ZERBITZUAK
	3.1.6. Kotxeak konpartitzeko eta herri-taxi zerbitzua martxan jartzeko proiektuak babestu (Basaburuan) eta zabaldu, genero-ikuspegitik eragin positiboa izango dutela bermatuz.	LEHENDAKARITZA
	3.1.7. Kontzejuen arteko bidexkak seinaleztatu eta pixkanaka gurpildun aulki eta bizikletentzat egokitu.	ALKATETZAK

3. erronka: EMAKUMEEN BIZIBALDINTZAK HOBETZEA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA
3.2. ZAINZA LANAK BIRBANATZEA ETA ZAINZAILEEN BALDINTZAK HOBETZEA	3.2.1. Zaintza lanen balioa aitortu, lanak birbanatu eta baldintzak hobetzeko urteroko programazioa egin eta ebaluatu, bailarako eragileekin elkar lanean.	ZAINKETEN ALDEKO ITUNAREN ASANBLADA
	3.2.2. Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren erabilera, asetasuna eta beharren inguruko diagnostikoa egin Ultzamaldean erabiltzaile, familia eta langileen iritziak eta datuak jasoz.	BERDINTASUNA
	3.2.3. Etxez-etxeko zerbitzuaren kalitatea bilatzeko mugakideak diren Mankomunitateekin hitzarmen bat egitea ordezkapen zerrenda komuna sortzeko.	LEHENDAKARITZA
	3.2.4. Etxez Etxeko laguntza zerbitzua hobetu diagnostikoaren emaitzak kontuan hartuz, zerbitzua egungo beharretara egokitu.	GIZARTE ZERBITZUAK
	3.2.5. Zaintza zerbitzuak bailaretara iristeko aukerak aztertzea eta martxan jarri: eguneko zentroak, Jubilotekak, espazio polibalenteak edo hauetara iristeko garraioa.	GIZARTE ZERBITZUAK
	3.2.6. Zaintzaile profesionalen egoerei jarraipena egin Gizarte Zerbitzuetatik eta beren egoerak hobetzeko neurriak martxan jartzea, "internak" barne.	GIZARTE ZERBITZUAK
	3.2.7. Zaintza zerbitzu pribatuak behar dituzten familien eta etxeko-zaintza langileen arteko zubi lana egin, Osasun Zentroarekin koordinatuta, aholkularitza eskainiz lan-baldintzen inguruan bi norabideetan.	GIZARTE ZERBITZUAK
	3.2.8. Familia barruko zaintzaileentzako atsedeen proposamenak egin ahalduntze eskolaren edo bestelako programen bidez.	GIZARTE ZERBITZUAK
3.3. EMAKUMEEN KOLEKTIBO EZBERDINENTZAKO AHALDUNTZERAKO PROGRAMAK EGONKORTZEA	3.3.1. Ahalduntze-eskolako jarduera eta programak egonkortu, lau hileroko bi egitarau eskainiz urtero.	BERDINTASUNA
	3.3.2. Emakumeen eta neskatilen ahalduntzea helburu duten ekintza kultural, aisialdiko edo kirolekoak eskaini.	KULTURA / KIROLA
	3.3.3 Landa eremuko emakumeen saretzea bultzatzeko ekimenak egin, beren egoera espezifikokoak ikusarazi eta bizi baldintzak hobetzeko.	BERDINTASUNA
	3.3.4. Emakume antolatuekin eta eragile feministekin elkarlanak sustatu eta baliabideak erraztu.	BERDINTASUNA
	3.3.5. Bi urtean behin Ultzamaldeko bailaretako Jardunaldi feministak antolatu.	BERDINTASUNA

4. erronka: BERDINTASUNA ERAIKITZEKO HERRITARRAK ETA ERAKUNDEAK INPLIKATZEA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA
4.1. HAUR, GAZTE eta FAMILIEKIN BERDINTASUNA BULTZATZEA	4.1.1. Eskolaz kanpoko jarduerak ikuspegi hezkidetzaitetik eta kontziliazioaren ikuspegitik eskaini. Neska eta mutilei eta adin tarte ezberdinei elkarrekin jarduerak egiteko programazioa eskaini LH eta DBHko ikasleentzat (kirol anitzak, artea eta kultura uztartuz)	EUSKARA / KIROLA
	4.1.2. Opor garaietan eta udan, ludoteka eta kanpaldiak eskaini adin-tarte ezberdinei egokituak, Ultzamaldeko gazteekin batera antolatuak; hezkidetzeta, kontziliaziorako aukerak, bizikidetzeta eta euskara ardatz hartuta.	EUSKARA / KIROLA
	4.1.3. Guraso eta familientzako berdintasun gaietan trebatu eta hausnartzeko ekimen kulturalak antolatu.	KULTURA
	4.1.4. Ultzamaldeko ikastetxeekin batera "on-live" bizitza seguruak indartzeko programa bat sustatu: hau da, aurrez aurreko bizitzan nahiz bizitza digitaletan segurtasunez eta askatasunez aritzeko programa (osasun mentala, zibersegurtasuna, jazarpenak, bakardadea, sexualitatea bezalako gaiak lantzeko).	BERDINTASUNA
4.2. GENERO-ROL eta ESTEREOTIPOAK APURTZEN DITUZTENAK BABESTU ETA SARETZEA	4.2.1. Genero-rol eta estereotipoak jarraitzen ez dituzten pertsona erreferenteak ikusarazi Ultzamaldean kultur eta kirol ekimenen bidez.	KIROLA / KULTURA
	4.2.2. Ikastetxeekin eta gazte eragileekin genero-disidentzien eta LGTBI kolektiboko pertsonen kontrako jarrerak neutralizatzeko neurriak identifikatu eta martxan jarri.	BERDINTASUNA
	4.2.3. Ultzamaldeko herritarren artean harreman afektibo sexual anitzen, familia mota ezberdinen eta genero-identitate ezberdinen aitortza eta errekonozimendua egiteko ekimenak egin (ekainak 28an, esaterako).	BERDINTASUNA
4.3. MUTIL eta GIZONEKIN BERDINTASUNA ERAIKITZEA	4.3.1. Gizonei eta mutikoei zuzendutako ekintzak antolatu genero-berdintasunaren alde paper aktiboa izan dezaten.	BERDINTASUNA
4.4. HERRITARRAK BERDINTASUNEAN INPLIKATZEA	4.4.1. Ultzamaldeko Berdintasun Zerbitzuak ekimenak zabaltzen dituenean, beti Planerako lotura erraztu, horrela, Berdintasun Plana ezagutarazi eta gardentasunez kudeatu ahal izateko.	BERDINTASUNA
	4.4.2. Ultzamaldeko Berdintasun Politiken inguruko informazio eguneratua jarri bailaretako herritarrentzat, izan herrietako panelen bidez, whatsapp taldeen bidez, sare sozialen bidez edo web orriaren bidez.	BERDINTASUNA

04 GENERO-BERDINTASUNA BULTZATZEKO III. PLANA

3. Plana kudeatzeko sistema

Berdintasunerako III. Planak garatzeko bi baliabide nagusi behar dira. Batetik, helburuak eta ekintzak garatzeko aurrekontua, eta bestetik, plana kudeatzeko teknikariak eta koordinazio guneak. Azken honi “egiturak” deitu diogu. Jarraian baliabideen zehaztapenak.




AURREKONTUA

ERRONKAKO	URTEROKO AURREKONTUA
Ultzamaldeko erakundeak barrutik eraldatzea	Prestakuntza: 2.000 euro Prozeduretan genero ikuspegia txertatzea: 2.500 euro
Indarkeria matxistarekin amaitzea	Prebentzioan: 4.000 euro Protokoloak ebaluatu eta berritu: 3.000 euro
Emakumeen bizi-baldintzak hobetzea	Zaintza: 4.000 euro Ahalduntzea: 7.500 euro
Berdintasuna eraikitzeko erakundeak eta herritarrak inplikatzeari	Haur eta gazteak: 5.000 euro Komunikazioa: 2.000 euro
GUZTIRA	30.000* euro

*2025ean aurrekontu horren % 83 dirulaguntzen bidez jaso zen (25.000 euro). Plana garatzeko aurrekontu gehigarria eskuratzen joan beharko da ondorengo urteetan 30.000 euroetara iritsi arte. Gainontzeko arloek ekintzak aurrera eramateko baliabideak jarri beharko dituzte.



EGITURAK



*Hauek dira, printzipioz, III. Planerako aurreikusitako egiturak, baina beharren arabera beste batzuk sor daitezke.

PLANA GARATZEKO EGITURAK

1. BERDINTASUN ZERBITZUA

Berdintasun politikak (Plan hau barne) bultzatu, koordinatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko.

OSAERA

Berdintasun teknikaria, jardun osoan.

FUNTZIOAK

- Genero-zeharkakotasunaren estrategia mankomunitatean eta udaletan garatzen laguntzeko ekintzak eta aholkularitza lanak egin.
- Berdintasun politikak garatzeko ekimen espezifikoak garatu eta koordinatu beste arloekin batera (emakumeen bizi baldintzak hobetu, indarkeria matxistaren kontra jardun eta herritar eta erakundeen inplikazioan lan egiteko).
- Plana garatzeko egituren bilera-deialdiak egin, bilerak koordinatu eta aktak egin.
- Harremanak eta elkarlanak landu berdintasun gaietan udaletako ordezkariekin, ikastetxeekin, elkarteekin, mugimendu feministarekin eta herritarrekin.
- Planaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta zabaldu (komunikazioa).

MAIZTASUNA

- Zerbitzua jardun osoko teknikariak sostengatuko du, printzipioz astelehenetik ostiralera, goizeko jardunean, nahiz eta bilera eta ekimenetara egokitzeko ordutegia egokitu dezakeen.

2. BERDINTASUN BATZORDEAK

Berdintasun politikak herrien beharretara egokitzeko gurea.

OSAERA

Udaletako berdintasun zinegotzi edo arduradunak, Mankomunitateko lehendakaria, Berdintasun teknikaria, mugimendu feministako kideak, beharrezkoa den kasuetan bestelako mankomunitateko teknikariak.

FUNTZIOAK

- Berdintasun politiketan garatzen ari denaren berri eman, Udal ordezkariekin eta herritarrekin bakoitzaren tokiko errealitatera plangintza behar bezala egokitzen den kontrastatu.
- Herrietatik datozen eskaera eta beharrak Berdintasun Zerbitzuari helarazi.
- Eragileek eta mugimendu feministak dituen ekimenen berri eman eta koordinatu.
- Elkar ezagutu, harremanak eta konfiantzak eraiki eta elkarlana sustatu.

MAIZTASUNA

- Mahai hau urtean lau aldiz elkartuko da. Urtarrila-otsaila aldera, martxoak 8ko ekimenak koordinatzeko. Maiatza-ekaina aldera, udako jaietako ekimenak koordinatzeko. Iraila aldera, Jabekuntza eskolako ekimenen eskaerak jaso eta koordinatzeko eta azaroaren 25eko indarkeria matxistaren inguruko ekimenak adosteko. Azaroa- abendua aldera urteko programaren jarraipena egin eta hurrengo urteko programa adosteko.

PLANA GARATZEKO EGITURAK

3. MANKOMUNITATEKO MAHAI-TEKNIKOAK

Mankomunitateko mahai-teknikoan Berdintasun politiken inguruko koordinazioa bermatzeko.

OSAERA

Berdintasun teknikaria, Kultura teknikaria, Kirol teknikaria, Euskara teknikaria, Garapen teknikaria eta Gizarte zerbitzuetako teknikaria.

FUNTZIOAK

- Berdintasun planaren arlo bakoitzaren urteko ekimenak zehaztu, elkarrekin diseinatu eta aholkularitza jaso.
- Genero-zeharkakotasunaren estrategian sakontzeko urteko erronkak eta prestakuntza beharrak identifikatu (urte bakoitzean landuko den kontratua edo genero eraginaren aurretiazko ebaluaketaren prozesua).
- Aurreko urteetan edo ekitaldietan egindako berdintasunaren aldeko ekimenak taldean ebaluatu.
- Hizkuntza eta iruditegi ez sexistaren behaketaren emaitzak konpartitu.
- Mankomunitateko langileen emakume eta gizonen berdintasunari buruzko egoerak identifikatu eta Barne-berdintasun planean aurrera eramateko neurriak garatu eta koordinatu.

MAIZTASUNA

- Mahai honek era monografikoan urtean hiru aldiz landuko ditu berdintasun gaiak, aukeran era presentzialean.

4. IDAZKARIEN ARTEKO MAHAIA

Udaletako eta mankomunitateko idazkari-juridikoekin Nafarroako 17/2019 Berdintasunerako Foru Araueko betebeharrei jarraipena egin eta aholkularitza emateko.

OSAERA

Mankomunitateko idazkaria, sei udaletako idazkariak eta Berdintasun teknikaria.

FUNTZIOAK

- Udal bakoitzak eskuartean dituen kontratu (lizitazio), udal-ordenantza, edota lurralde-ordenamendurako arau garrantzitsuenak zeintzuk izango diren identifikatu, eta horietan genero-ikuspegia txertatzeko aukerak baloratu (Berdintasun teknikariaren laguntzarekin).
- Mankomunitatean eta Udal prozedura administratiboetan genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak (instrukzioak) proposatu (Berdintasun teknikariak idazkariei, printzipioz garatutako proiektu pilotuak garatu ondoren sortuak).
- Enplegu publikoaren gaietan genero-ikuspegia txertatzeko aholkularitza eskaini.
- Hizkuntza eta iruditegi ez sexistaren behaketaren emaitzak konpartitu.
- Genero gaietan trebatzeko espazioa izan (formaziorako espazioa).

MAIZTASUNA

- Mahai hau urtean behin elkartuko da, ahal bada era presentzialean.

PLANA GARATZEKO EGITURAK

5. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA KASUAK KOORDINATZEKO MAHAIA

Mankomunitate barnean indarkeria matxistaren kontrako politiken koordinazioa hobetzeko eta kasuen jarraipena egiteko mahai-teknikoa.

OSAERA

Gizarte zerbitzuetako teknikaria, Berdintasun teknikaria, BAIT-eko gizarte langilea eta Osasun zentroko gizarte langilea.

FUNTZIOAK

- Ultzamaldean osasun zentrotik, BAIT-etik eta gizarte zerbitzuetatik artatzen diren kasuak koordinatu.
- Indarkeria kasuen prebentzio, detekzio, arreta eta erreparazioan egon daitezkeen hobekuntzak detektatu eta irtenbidea bilatu.
- Tokiko koordinazio mahaiari helarazi beharreko informazioa identifikatu eta helarazi.
- Zerbitzu eta baliabideen inguruko informazio eguneratua partekatu.
- Barneko protokoloak zehaztu eta berritu.

MAIZTASUNA

- Urtean lau aldiz elkartzen da mahai hau.

6. TOKIKO KOORDINAZIO MAHAIA (indarkeria)

Emakumeen kontrako indarkeria matxista kasuak erakundeen artean hobeto koordinatu eta kasuen jarraipena egiteko.

OSAERA

Gizarte zerbitzuetako teknikaria, Berdintasun teknikaria, BAIT-eko gizarte langilea, Osasun zentroko gizarte langilea, foruzaingoa eta guardia zibila.

FUNTZIOAK

- Protokoloa eta batera aritzeko prozedura ezagutu.
- Protokoloan jasotako neurriak abian jarri eta protokoloaren aldizkako jarraipena egin.
- Irizpideak ezarri hautemate goiztiarrerako, koordinazioa hobetzeko eta arrisku handiko kasuak dagozkien eragile arduradunengana azkar bideratzeko.
- Koordinazioan eman daitezkeen desorekak hauteman, eta beharrezko zuzenketak txertatu edo proposatu.
- Toki entitatean, emakumeen kontrako indarkeriak duen eragina ezagutu, aztertu eta horren berri eman.
- Toki entitatera moldatutako estrategiak bultzatu indarkeriarekin lotutako sensibilizazioaren eta prebentzioaren arloetan, horiek garatzeko lankidetzan jardun eta, azkenik, horien eragina ebaluatu.
- Protokoloaren berri emateko ekintzak egin.
- Protokoloaren esparruan egindako lanari buruzko informazio garrantzitsuaren berri eman NABlri, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta, hala badagokio, beste eragile batzuei, emakumeen elkarteak, talde feministak eta herritarrak barne.

MAIZTASUNA

- Urtean bi aldiz elkartzen da mahai hau.

PLANA GARATZEKO EGITURAK

6. ZAINZEN ITUNERAKO MAHAIA

Berdintasunerako Plana sustatzeko, koordinatzeko eta jarraipena bermatzeko.

OSAERA

Zaintzen gaiekin inplikaturik dauden herritarrak, udaletako ordezkariak, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria, Berdintasun teknikaria, guraso elkarteak, jubilatuek elkarteak, ikastetxeak.

FUNTZIOAK

- Itunaren diseinuan, idazketan, berrikuspenean eta erkaketan parte hartu, onartzeko.
- Ituna garatzen, betearazten parte hartu.
- Proposamenak egin Ituna eta Urteko Lan Programak garatu eta diseinatzeko.
- Dokumentuak onartu.
- Itunari atxikitze eskakerei eta Ituna uztekoak onartu.
- Itunaren behin betiko dokumentua onartu.
- Ituna sinaduran parte hartu.
- Ituna diseinatu, betearazi eta ebaluatzeari buruzko erabakiak hartu.
- Urteko Lan Programetako akordioak eta edukiak onartu eta hauen garapeneren jarraipen eta ebaluazioan parte hartu eta hobetzeko ekarpen eta proposamenak egin.
- Ituna zabaldu eta atxikimendu gehiago lortu.

MAIZTASUNA

- Mahai hau lau hilean behin elkartuko da



04 GENERO-BERDINTASUNA BULTZATZEKO III. PLANA

Urteroko programen betetze-maila neurtzeaz gain, Planaren emaitza-adierazleak identifikatu dira planaren helburuen betetze-maila neurtzeko.

ERRONKA	HELBURUAK	ADIERAZLEA	ITURRIA
1. erronka: ULTZAMALDEKO ERAKUNDEAK BARRUTIK ERALDATZEA	1.1. BERDINTASUNA SUSTATZEKO BALIABIDEAK ETA GAITASUNA HANDITZEA	Berdintasun politiketan inbertitu den aurrekontua urtez urte, eta mankomunitateko aurrekontu osoarekiko portzentaia.	BERDINTASUNA
		Berdintasunari buruzko prestakuntza jaso duten langile eta udal ordezkarien kopurua sexuaren arabera eta udalaren arabera (ikastaroaren gaiak eta orduak barne)	BERDINTASUNA
	1.2. ADMINISTRAZIOAREN EGITEKO MODUETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA	Udaletako kontratazio publikoetan, balorazio irizpide gisa berdintasun gaia zenbat kontratuetan sartu den eta portzentaia	IDAZKARITZAK
		Berdintasun irizpideak dituzten dirulaguntza eta kontratuetan zenbatetan egin den jarraipena	IDAZKARITZAK
		Lurralde antolamenduko araudietan genero eraginaren aurretzeko ebaluaketa zenbatetan egin den eta portzentaia	IDAZKARITZAK
	1.3. BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO ELKARLANERAKO ESPAZIOAK EGONKORTZEA	Koordinazio mahaiak zenbatero elkartu diren urtean	BERDINTASUNA
2. erronka: INDARKERIA MATXISTAREKIN AMAITZEA	2.1. INDARKERIA MATXISTAREN AURKA HERRITARREKIN SENTSIBILIZAZIOAN, PREBENTZIOAN eta ERREPARAZIOAN LAN EGITEA	Sentsibilizaziorako eta kontzientziariorako egindako ekintza kopurua eta antolatutako saioretan parte hartzaile kopurua adin eta sexuaren arabera	BERDINTASUNA
		Indarkeria gaitzesteko emandako erantzun publiko kopurua	BERDINTASUNA
		Mankomunitate mailan indarkeriari aurrea hartzeko komunitatearekin garatutako prozesuak bailaraka	BERDINTASUNA
	2.2. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ARLOKO ESKU-HARTZEAK HOBETZEA ETA ULTZAMALDEKO ETA NAFARROAKO ZERBITZUEKIN KOORDINATZEA	Detekzioa, arreta eta deribazioa hobetzeko egindako ekintzetan parte hartu duten profesional kopurua sexuaren arabera eta erakundearen arabera	BERDINTASUNA
		Jarraipen eta koordinazio sistemetan egindako hobekuntzak	GIZARTE ZERBITZUAK
	2.3. INDARKERIA MATXISTA BIZI IZAN DUTEN EMAKUMEEN ERREPARAZIOAN LAN EGIN ETA ZERBITZUAK UGARITZEA	Emakumeen erreparaziorako aurrera eraman diren ekintza kopurua eta parte-hartzaileek izan duten balorazioa	BERDINTASUNA
		Sortu diren zerbitzu berriak	BERDINTASUNA

ERRONKA	HELBURUAK	ADIERAZLEA	ITURRIA	
3. erronka: EMAKUMEEN BIZIBALDINTZAK HOBETZEA	3.1. ENPLEGUEN ETA ZERBITZUEN IRISGARRITASUNA BULTZATZEA	Irisgarritasuna hobetu duten zerbitzuak eta izan duten hobekuntza	GIZARTE ZERBITZUAK	
	3.2. ZAINZTA LANAK BIRBANATZEA ETA ZAINZTAILEEN BALDINTZAK HOBETZEA	Etkez etxeko zerbitzuan eta zaintzaile profesionalen baldintzetan egindako hobekuntzak	GIZARTE ZERBITZUAK	
		Zaintzaile profesionalen bizi baldintzak hobetzeko hartutako neurriak	GIZARTE ZERBITZUAK	
		Familiei eta etxeko zaintza langileei emandako aholkularitza kopuruak bailaraka	GIZARTE ZERBITZUAK	
	3.3. EMAKUMEEN KOLEKTIBO EZBERDINENTZAKO AHALDUNTZERAKO PROGRAMAK EGONKORTZEA	Beste arloetatik eskainitako ahalduntzerako ekintza kopurua	KULTURA / KIROLA	
		Ahalduntze programaren barruan egondako eskaintzaren iraunkortasuna	BERDINTASUNA	
		Ospatu diren jardunaldi feminista kopurua	BERDINTASUNA	
	4. erronka: BERDINTASUNA ERAIKITZEKO HERRITARRAK ETA ERAKUNDEAK INPLIKATZEA	4.1. HAUR, GAZTE eta FAMILIEKIN BERDINTASUNA BULTZATZEA	Haurrei eta gazteei zuzenduriko eta ikuspegi hezkidetzaietik egindako jarduera kopurua eta parte hartzaile kopurua	EUSKARA / KIROLA
			Berdintasunaren inguruan gurasoei zuzenduriko jarduera kopurua eta izan duten parte hartzaile kopurua sexuaren arabera bereizita	KULTURA
4.2. GENERO- ROL eta ESTEREOTIPOAK APURTZEN DITUZTENAK BABESTU ETA SARETZEA		Eskolekin batera antolatutako jarduera kopuruak	BERDINTASUNA	
		Genero disidentziek tokiko medio eta ekintzetan izan duten presentzia	KIROLA / KULTURA / BERDINTASUNA	
		Genero disidenteen babeserako egindako ekintza kopurua	BERDINTASUNA	
4.3. MUTIL eta GIZONEKIN BERDINTASUNA ERAIKITZEA		Gizon eta mutilak berdintasunean parte aktiboa izateko egindako ekintzka eta egon den parte-hartzea	BERDINTASUNA	
4.4. HERRITARRAK BERDINTASUNEAN INPLIKATZEA		Herritarrak berdintasunean inplikatzeko sortutako espazioak eta hauetan egon den parte-hartzea	BERDINTASUNA	

Zazpi urteko plana izanik, 2029an erdi mailako ebaluazioa egingo du Berdintasun Zerbitzuak, Plana egokitu behar den identifikatzeko. Horrez gain, erdiko ebaluazioa Plana kudeatzeko egituretan kontrastatuko da.

Planaren indarraldia amaitzean kanpo laguntzarekin amaierako ebaluazioa egingo da.

04 GENERO-BERDINTASUNA BULTZATZEKO III. PLANA

4. Planaren komunikazioa



Komunikazioak garrantzi berezia izango du prozesu guztian zehar gardentasun ariketa bezala. Komunikazioa bi norabideetan emango da. Alde batetik, barrurako komunikazioa, udal eta mankomunitateko langile eta ordezkariari zuzenduko dena. Bestetik, kanporako komunikazioa, herritar eta eragileei zuzenduko dena.

Udal barrura begirako komunikazioa: sailen artekoa, teknikoa eta politikoa

Udal kanpora begirako komunikazioa: herritar eta eragileei zuzendua

Komunikazio hau hiru momentu desberdinetan emango da, momentu guztietan bai barrurako, bai kanporako komunikazioa egongo delarik.

- Lehendabizi, plana onartu ondoren, honen aurkezpena egingo da, honen edukia ezagutzera emateko.
- Bigarrenik, plana indarrean dagoen bitartean, komunikazio jarraia egongo da aurrera eramaten diren jardueren berri emateko eta honen betetze maila jakinarazteko, erdiko ebaluazioa barne.
- Azkenik, planaren indarraldia amaitzean bukaerako ebaluazioa egingo da eta gardentasun printzipioarekin jarraitzeko, ezinbestekoa izango da ebaluazioaren ondorioak komunikatzea.

Mila esker

Berdintasun plana eraikitzeko prozesuan parte hartu duzuen guztiei esker ona adierazi nahi dizuegu: Mugimendu feminista, Mankomunitateko langileak, udal ordezkariak, Jubilatu Elkarteko kideak, guraso elkarteko kideak, ikastetxeak eta ekarpena egin duzuen beste eragile guztiak. Zuen konpromisoari esker, aurrera egin ahal izan dugu.

Dokumentu hau ez da helmuga, baizik eta bide baten hasiera. Ez gara hutsetik abiatzen, baina oraindik erronka eta aukerak ditugu aurrean. Guztion ekarpenari esker, berdintasunerantz urrats eraginkorrak ematen ari gara, eta elkarrekin aurrera egiten jarraituko dugu.

Eskerrik asko zuen parte-hartzeagatik, konfiantzagatik eta lan egiteko prestutasunagatik.

Elkarrekin urrutiago iritsiko gara.

Planaren sustapena eta koordinazioa:



BERDINTASUN
ZERBITZUA



Mancomunidad
de Servicios Sociales
zona Ultzama
Ultzamaldeho
Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitatea

Diseinua eta aholkularitza:

elhuyar

Diruz lagundua:

Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



Mancomunidad
de Servicios Sociales
zona Ultzama

Ultzamaldeko
Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitatea



BERDINTASUN
ZERBITZUA

elhuyar 
ezagutuz aldatzea

www.elhuyar.eus